

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

2000ko otsailaren 4a V.urtea

Usurbil, 82. zenbakia



**Ardi esnea
saldu ezinik
aldapa gora**

Egin zaitez Noauako bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo eta erosketak merkeago egin nahi badituzu hona hemen zure aukera

%10eko
beherapena

Aldatz kioldenda

Mahuka
jantzidenda

Pauma Haur
jantziak

Truke jantzidenda

Usurbil optika
denda

Intza ileapaindegia

2.500 pezetatik
gorako otordua
eginez gero
%10eko
deskontua

Antxeta jatetxea

Patri jatetxea

Zumeta jatetxea

BIDEO IKUSKA





Traspasatu egiten da

Interesatuok deitu
943 37 10 98 edo 943 83 82 95
telefonotara



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Urte askotarako **Inaxi Eizagirre!** Otsailaren 14an egun polita pasa dezazula opa dizugu. Segi orain bezain poxpolin. Zure familia.



Zorionak **Ane!!** 14 urte badituzu ja otsailaren 4an beteta. Ondo pasa zure eguna eta opari asko jaso. Zure kolegak.



Zorionak **Larraitz!!** Zure urtebetetze eguna urtarrilaren 31an izan zen. Espero dugu "ongi" pasatzea. Zure koadrilakoen partez muxu bero bat.



Zorionak ama urtarrilaren 28an zure urtebetetze eguna izan zelako. Jarraitu orain arte bezalaxe, hain gazte eta lirain. Etxekoak.



Zorionak **Garazi!** Otsailaren 5ean beteko dituzu 8 urte. Beraz, neskatxa honentzat muxu haundi bat. Etxekoak



Urteaskuan **Inaxio!** Zorionak eta besarkada haundi bat familiakoen partez.



Zorionik beroenak **Aitziber eta Asierri** beren 8 eta 6. urtebetetzean. Txintxo-txintxo segi dezazueta eta muxu haundi bat bere aita eta amaren partez.



Jon Ander eta Kerman Bruño Arrieta. Zorionak eta muxu haundi bana etxeko partetik.



Zorionak **Paki!** Ondo pasa dezazula zure urtebetetze egunean. Etxekoak.



Batek 58 urte eta besteak 32, aita eta alba izan, biontzat urteek gora egiten dutelaj Zorionak eta muxu bana. Etxekoak.



Zorionak **Gloria** Otsailaren 3an 17 urte bete zenituen. Zure urtebetetze egunean ondo pasako zenuelakotan... Familiakoen partez.

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarrege ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kirolegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarte 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tartea hau erabili dezakete. Ekarrri jarri beharreko testua eta argazkia. Hurrengo alea: otsailaren 19a
Ekartzeko azken eguna: otsailaren 12a

Jaiotzak

Enara Giraldez Gonzalez
(2000-01-10)
Muna Lurra

Enara Eizagirre Hueta
(2000-01-18)
Kale Nagusia

Ainara Aranburu Curiel
(2000-01-25)
Muna Lurra

Hildakoak

2000-01-20
Sebastiana Areizaga Iruetagoiena
88 urte
Kaleberri

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

* Orioraino bakarrik
** Alaraino joaten da

* Oriotik irtetzen da
** Aiatik irtetzen da

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz
07.30	07.55	08.15
08.30	08.55	09.15
09.30	09.55	10.15
10.30	10.55	11.15
11.30	11.55	12.15
12.30	12.55	13.15
13.30	13.55	14.15
14.30	14.55	15.15
15.30	15.55	16.15
16.30	16.55	17.15
17.30	17.55	18.15
18.30	18.55	19.15
19.30	19.55	20.15
20.30	20.55	21.15
21.30	21.55	22.15
22.30	22.55	23.15

Zarautz	Usurbil	Donostia
06.45	07.05	07.30
07.45	08.05	08.30
08.45	09.05	09.30
09.45	10.05	10.30
10.45	11.05	11.30
11.45	12.05	12.30
12.45	13.05	13.30
13.45	14.05	14.30
14.45	15.05	15.30
15.45	16.05	16.30
16.45	17.05	17.30
17.45	18.05	18.30
18.45	19.05	19.30
19.45	20.05	20.30
20.45	21.05	21.30
21.45	22.05	22.30



Argitaratzailea

Noaúa! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tif. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaúa@topagunea.com
Web orria:
http://www.topagunea.com/noaúa/

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur eta Arantxa Irazustabarrena.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaúa! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-nen eta iritzien erantzunik.

Noaúa! Kultur Elkarteko jendaurreko udarako ordutegia: 11.00-13.00 astegunetan

Azala:
Santos Jauregi larretik ardiak baserrira ekartzen

Zer irizten?



La Sánteko espetxetik hizketan

Patxi Seguro

Kaixo Usurbil! Agur Pariseko La Sante presondegi honetatik. Aspaldian Usurbilgo nere etxetik kanpo nebilen, 1994ko ekainaren 4tik hain zuzen ere. Etsaiaren atzaparretatik ihes egitea lortu nuelako, niri ez harra-patzeak eraginiko arrabiaren bitartez, nere emazte laguna atxilotu, torturatua izan zelako, egun seinalatua da, bai neretzat eta bai famili lagunentzat. Oraingo honetan, ordea, ez dut hain-besteke zorterik izan eta hegaldia moztu didate.

Hala ere ez dut amore emango eta borrokak segitzen du, orain beste fase batean: preso naukatelako. Denok dugu zeregina Euskal Herriaren Askatasuna lortzeko, denoi dagokigu Euskal Herria eraikitzea. Horretarako presoak ere Euskal Herrian izan nahi dugu, bere zati bat garelako. Presoak kalera, amnistia osoa!! Euskal Herriak bizi duen egoera honetan euskal preso-en kolektiboak zer motako borrokaldia eramaten ari garen ondo asko dakizue, eta nik borrokaldi horrekin ados nagoela jakinaren gainean jarri nahi zaituztet. Seguraski, hemen La Sánten momentu honetan gose greban dauden Txuma, Gorka eta Sergioren lekukoa hartu dut.

Presoak barrutik, zuek kanpotik, denon artean, denok bat eginda euskal gizarteari bere eskubideak ukatzen ezin dutela segi adierazi behar diegu Estatu Espainolari eta Frantzesari. Gizarteak argi asko adierazten du nor garen eta noraino iritsi nahi dugun. Utzi pakean euskaldunoi gure herria guk nahi dugun bezalala eraikitzen.

Pauso garrantzitsuak ematen ari gara, Lizarra Garazi, Udalbiltza, sindikatu abertzaleen arteko adostasuna, abertzaleen arteko batasuna eta abar. Honek denoi parte hartze zabalagoa eskatzen digu, oraindik lan asko dauka-gulako aurrerantz egiteko. Izan ere, Euskal Herriaren eraikuntza nazionala behin betiko bideratu behar dugu, atzera bueltarik izan ez dezan. Zoritarrez, oraindik borroka eta mobilizazioak ditugu gure tresnak, baina

denoi dagokigu parte hartzea, beraz animo eta aurrera!! Utzi alde batera gure desberdintasunak eta parte hartu dezagun bakoitzari tokatzen zaigun lekuan.

Ezin dut ixilik gorde EAJ eta EArekin ditudan zalantzak. Nahiz eta azken egunetan PPren gobernuarekin EAJk eduki duen haustura, eta egiten ari diren deklarazioak entzun ditudan, gogoan ditut ETaren su etenaren ondorioz, bai EAJk eta bai EAK egindako ahaleginak bere garaian hartu zuten konpromezua gezurtatu nahian. Ba denok irakurri eta ikusi ditugu beren sinadurak egunkarien bitartez. Euskal gizartea heldua dela eta gezurraren eta engainuaren bidetik ezin dutela segi ez al dira konturatzen? Gure herriarentzat azken helburua independentzia dela benetan egia bada pasa daitezela hitzetik ekintzara.

Beste aldetik, eta gaiaz aldatuz, presondegi honetara iritsi nintzenetik jueza-rengandik beste burkideekin egoteko debekua daukadala esan behar dizuet. Ahaleginak egiten ari gara, baina oraindik berdin segitzen dut. Egoera berean dago Julian Atxurra Egurrola "Poto", hau ni baino aste bat lehenago iritsi zen hona. Egoera honek zailtasun handiak ekartzen dizkigu, baita bisita orduetan ere. Hainbesteko bidaia egiten duzue familia eta lagunak, eta debeku hori dela medio beti gelditzen da norbait bisita bikoitzarik gabe. Hainbesteko bidaia 45 minutuko bisitaren truke.

Animo handiarekin nago hala ere, gogor, pazientzia askorekin. Ba nere ustez pazientzia dugu armarik onena, egoera hauetan ez gaitezen erori etsaiaren jokoan.

Besterik gabe, har ezazue Usurbilgo aginur honen besarkada bero eta iraunkorrena. 2.000.ak ekarri dieziola Osasuna eta Askatasuna gure herri maiteari!! Gora Euskal Herria Askatuta!! Presoak etxera amnistia osoa!! Jo ta ke independentzia lortu arte!! Agur maite-korrenak.





Urik ez Artikula aldeko iturrian

Usurbilen bada txoko politiko. Txokoalde aldera, Zubieta aldera, Aginaga aldera... jendea hara eta hona ibilalditxo bat eginez noiznahi ikusi duzu, eguraldi ona denean behintzat. Kalezarren ere bada nora joana. Arratzaindik barrena, Igeldorantz edo Aginagarantz joan daiteke autopistako zubia pasa ondoren.

Horko kontu bat dakarkizuet nik. Izan ere, zubia pasa ondoren bada ur prexkoa ematen duen iturri bat. Oinezkoak behin baino gehiagotan ikusi izan ditut ura hartzen eta kotxez etxera eramateko ur bila joaten denik ere bada.

Orain dela gutxi ordea, Foru Aldundiarentzat zuhaitz igela berreskuratzeko lanean ari direnek iturria urik gabe utzi zuten. Ur bila joan eta urik ez, hortxe alferrikako bidaia. Hala ere, ezin utziko nuen hura horrela. Hodi puska bat eskatu eta neronek konpondu nuen. Lehen esan bezala asko dira iturri hortatik ura edaten dutenak, eta pena zen bere horretan uztea.

Hala ere, Foru Aldundikoei kontu haundiago ibiltzeko



esango nieke. Ondo dago zuhaitz igela berreskuratzen saiatzea, baina lehen zeuden gauzak bere horretan uztea ere ona izaten da.

Joxe Miguel Odriozola



Asteazkenetako merkatua lekuz aldatu zen urtarrilaren 26an. Paris etxe atzeko apartokalekutik Eguzkitzalderra joan ziren merkatariak. Ziur bat baino gehiago harrিতa geldituko zela betiko lekura joan eta posturik ez aurkitzean. Eskerrak ez zuten urrutira eraman, bi pausora egon baitzen azoka

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



HERRIKO TABERNA



Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Euskal presoak etxera!

Tel. 943 36 02 17

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA

Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubiaurrena, 10
Tel. 943 37 18 07 - Faxa: 943 37 63 41

TXOKOALDE

Eukene Kamino



Ohitura zaharrei ezin eutsi

Orain dela urte gutxi arte gure auzo honetan gauza arruntatzat genituen ohiturak oraintxe bere azkenetan daude. Esate baterako lehen esne-biltzailea hainbat baserri-tako esnea biltzera etortzen zen. Azkenaldi honetan Portu baserrikoek bakarrik ateratzen dugu esnea, eta behiak gutxitzeko asmotan garela eta, martxoaren azkenean emango zaio tamalez amaiera bizitza osoan ezagutu dugun usadio honi.

Aste honetan etxean burutu berria dugu auzoan galtzen ari den beste usadio bat, hau da, txerria baserrian hazi eta hiltzeko errituala, gurean bakarrik irauten baitu ohitura honek.

Larunbatean Erroizpe Elkartearen sagardoaren gazi-gozaok dastatzeko asmotan hirurogei bat lagun bildu ziren bertan izandako barrikotean. Sagardoa Adunako Zabala sagardotegikoa bazen ere, saltsan egindako makailu goxoa Joxe Manuel Alkorta eta Anjel Iturraldekin prestatua izan zen eta zikiroa buruntzian, berriz, Juan Maria Bordak lehen aipatutako beste bien laguntzarekin.

Anjeli eskerrak eman nahi nizkioke aurreko kronika batean nik egindako akats bat zuzentzeagatik. Hau da, elkarteko estatutoak dionez edozein emakume edozein unetan egin omen daiteke bazkide, gizonak bezalako baldintzekin.



KALEBERRI

Arantza Irazustabarrena



Porrusaldaren ordua

Gaurkoan porrusalda batekin natorkizue, izan ere, beti badago zer kontatua gure auzo honetan.

Batetik, pasa den urtarrilaren 26an asteazkeneroko azoka izan, izan zen, baina leku ezber-

dinean. Agian baten bat ohiko lekura azaldu eta azoka ez zegoelakoan esku hutsik bueltatu zen etxera!

Paris atzeko parkea dela eta, azterketa geoteknikoa egiten egon omen ziren eta horren

ondorioz, zuloak eginda zeudenez azoka Antxeta pareko bidean jarri zuten merkaturua. Parkea egiten dutenean hemen egingo al da azoka? Ez lasai egon, merkaturua egiteko leku estali bat

egiteko asmoa baitute.

Bestetik, dagoeneko hasi da Aitzaga Elkarteak urtero antolatzen duen buruz-buruko esku pilota txapelketa. Ez dirudi jende asko gerturatzen denik partiduak ikustera, badakizue giro goxoagoa egoten da taberna zuloan edo.

Azkenik, pasa den larunbatean, hilak 29, errotanda inguruan egun guztian zehar izan ziren Euskal Presoak euskal herriratzearen aldeko adierazpenak. Ordu beteko txandak egin zituzten bertan bildu zirenak.


Ziur besterik izango dela kontatzeko, baina hurrengorako ere zerbait uzti beharko dut. ADIO!



KALEZAR

Edari paregabea...

Udazkena joan zitzagun eta dagoeneko neguko lan erdiak egin ditugun honetan, jende ugari dabil sagardo eta sagardotegi buelta horretan.



Hiru edo lau hilabetez kupelean, mimoz eta ahalik eta hobekien zaindu ondoren, heldu da txotxa garaia, horrenbeste jende mugitzen duen urte sasoi. Edozein kalezartarri

galdetu besterik ez dago zenbat gelditzen diren Saizar non dagoen galdezka!

Baina, jakina da sagardotegiez gain, baserri askotan egiten dela etxerako sagardo, hau izaten baita urte osorako edari bakarra.

Joseba Pellejero



Kalezarren gaur egun 21 tola-reditugu: Arratzain, Arratzain-Berri, Egioleta-Txiki, Egioleta-haundi, Bizkarre, Babilonia, Artxubieta, Ibarrola-haundi, Esperantza, Ibarrola-txiki, Learritz, Olanonea, Illaramendi-zahar, Zelai-haundi, Saizar, Ugarte-Etxeberri, Zabalonea, eta Ugarten eta Urtetan bina.

Hauetatik bakarren batzuk jarraitzen dute sagardotegi moduan, beste batzuk bertan egindako edari paregabe hau saltzen dute nahi izanez gero.

Beno, hau esan da, urrutira joan gabe, herrian bertan dugu noneta zer edana.

ATXEGALDE

Dendarik gabe

Gure auzoa bizi-poza galitzen ari da. Auzotarrak gero eta urrunago gaude eta lotzen gaituen gero eta gauza gutxiago dago.

Non gelditu ote dira Udarregiko plazako jolasak? Bazirudien han biltzen ginenak betirako lagunak izango gine-la. Garai hartan sokasaltoak, baloiak, palak edota bihurrikeriek lotzen gintuzten. Gaur egun bizio txarragoak hartu ditugu eta herriko tabernetara jotzen dugu laguntasun bila, tartean auzotarrak izango dira, noski.

Lehen, "sikira", "denda mailako laguntasuna" mantentzen genuen. Ogi bila joan eta ordu erdi pasatzen duzuneko laguntasun mota. Orain, hori ere ez dugu. Mari Pazek 27 urtetan izan zuen denda eta ondoren Xabik hartu zuen. Goizuetarra nonbait gustora ez, eta denda itxi du.

Eskerrak, Maria Luisak harategian ogia salgai duen!

Lehen herrira bizio gaiztoetara hurbiltzen ginenak, orain eros-

Amagoia Mujika



ketetara ere etorri behar dugu. Auzoaren kaltetan puztuko da herria.

Xabik umezurtz utzi gaitu. Lehen auzo nortasuna falta zitzagun, orain denda ere falta zaigu.



SANTUENEA

Pako Agudo




Auzo bizitza berreskuratu nahian

Kaixo eta urte berri on! Inoiz ez da berandu, hala?

Urte berriak ez du aldaketa haundirik ekarri gure auzora. Joan den urtean geneuzkan arazo berdinak izaten jarraitzen dugu, baina horiek iazko kontuak dira.

Bazirudien urte ospetsu honek berrikuntza ugari ekarriko zituela, baina ez berrikuntzarik ezta jenderik ere ez du ekarri.

Nik neuk ere, gero eta denbora gutxiago pasatzen dut auzoan. Ondorioz, errazagoa



da auzotarrekin taberna denda edo auzotik kanpo elkartzea, auzoan bertan baino.

Harrigarria iruditzen zaidana zera da: Auzoan egoten naizen

denbora laburrean, ikusten ditudanak ez ditut ia ezagutzen edo bistaz bakarrik.

Ez da txarra auzo lasai batean bizitzea, baina bizi baino jendeak lo bakarrik egiten du Santuenean. Urteetan zehar izan dugun auzo giroa galtzen ari da, auzoa hiltzen ari zaigu.

Denok egin behar dugu zerbaít hau berreskuratzeko eta auzoan antolatzen diren ekitaldietan, nahiz eta gutxi izan, parte hartzera gonbidatzen zaituztet guztiok.

URDAIAGA

Istripu arrastoa

Joseba Zubeldia



Urtearrilaren 17an, astelehena, goizean bizikleta hartu eta eguneroko saioa egitera abiatu nintzenean, Urdaigako aldapan behera, Santuenera iritsi baino lehen, kristal pila baten gainera pasa beharra izan nuen.

Ez nuen zulaturik izan, baina ez zen harrizkoa izango egoera horretatik pasa beharra izatea. Izan ere, errepidearen alderik alde baitzeuden kristalak, eta hori gutxi balitz, pneumatiko arrastoak eta eskuin aldeko penditza jota. Istripu arrastoa zen, ez dut honen berririk baina gauean gertatua zen, ziurrenik.



Egia da, bai, autoak gero eta azkarragoak egiten dituztela eta azeleragailuari zanpatzea erraza gertatzen dela. Baina horrelako errepide batean, bi auto harrokeririk gabe pasatzen diren errepide honetan, askotan beranduegi izaten da frenatzeko.

Errepide honetan geroz eta auto gehiago ibiltzen dira eta asko azkarregi. Horretaz gain, oinezkoak ere dexente ibiltzen dira, baita txirindulariak ere. Arriskua areagotuz doa, autoz jotako katu pare bat hilak ere ikusi ditut azken egun hauetan.

Beraz, errepide honetan ibiltzen garen gidari orori lasaiago ibiltzeko aholkua emango nieke.

Bestalde, esan neguko giro hotzak direla eta ez dabilela jende askorik, ez mendira doazenak ezta parkera lasaitasun bila etortzen direnak ere.

AGINAGA

Birziklaketa bultzatu nahi bada...

Maria Angeles Arruti



Nire tartetxo hau eskaera batekin estreinatuko dut. Intxaurretako bailaran, 15 bat familia bizi gara. Aginagatik ez hain gertu eta Usurbildik nahiko urrun gaudenez, batzutan arazoren bat edo beste izan ohi dugu.

Gaur egun birziklatu behar dugula esanaz dabilta han eta hemen. Baina, ohitura on hau bultzatzeko modurik onena birziklatzeko bideak erraztea da, eta Intxaurretan ez da horrelakorik gertatzen. Ingurune honetan edukiontzia zaborrarentzat bakarrik ditugu, ez ordea, plastiko, kristal eta kartoiarentzat.

Intxaurreta ez da auzo bat, baina familia dezente bizi da bertan, bailara hau garrantzitsua da. Beraz, bailara bezala dagokigun tratua emateko eskatu nahi nuke eta guri ere birziklatzeko aukera emateko.

Bai, Aginagan badaude plastiko, kristal eta kartioak bota-

tzeko ontziak, baina astuna da etxean pilatzen direnak kotxean hartu eta Aginagaraino joan beharra. Horrelakoetan badakizue zer gertatzen den; Aginagaraino ez joateagatik, zaborrak behar ez diren lekuan botatzen dira.

Bestalde, behin eskatzen hasita, beste gauzatxo bat ere badut: Komentza-Eneatik Sari baserrira dihoan bidean argi bat jartzea.

Eskaera hauek Nekazaritza Aholku Batzarrean eginak ditugu eta esperoan gaude. Hala eta guztiz ere, badaezpada hemen doaz berriro.



ZUBIETA

Jon Tapiaren liburua kalean

Xabier Arregi



Liburua dago kalean. Jon Lez. Jon barruan dago Puerto de Santa Mariako espetxean, Zubietatik urruti, oso urruti. "Gartzelatik: poema eta bertso bilduma" du izenburu liburua. Eta bai, ezagun du kartzelan egina dela; batetik apala eta sinplea delako, eta bestetik bizipen gogorrez gainezka dagoelako.

Liburuak badu samurretik:

**Pinpirin, lerden, asmatzen zaitut
oihan-larretan barrena,
lili orenen lilia bezain
airosa eta gardena**

Eta badu gordinetik:

**Gaumin honetan
deika natzaizu
alferrik, baina! ajolik ez dizu.
Nigandik ihes era tristean
gorderik zaude hodei artean
Barroteari
heldurik nago asper ta nagi;
jada galdua zaitut, ilargi!**

Gordina, izan ere, beste inon



baino gordinago omen da kartzelan.

Samurtasuna eta gordinkeria, etsia eta esperantza: Jonen lekukotasun bero-beroa da liburua.

Gose-greba batean idatzitakoa da honako hau:

**Gaua heldu da minez beterik
gosetuaren hobira
eta ilunak zer ekarriko
leihotik nago begira.**

Jonen hitzok bitarteko direla, ekar dezagun gogora gosegreban dauden euskal preso guztien sufrimendua. Eutsi goiari Patxi!

Paris etxe atzeko parkea egiteko lurren okupazioa

Jende askok Paris etxe atzeko parkeko lanak egiten hasi zirela uste bazuen ere ez da horrela izan. Pasa den urtarrilaren 25ean makina batzuk lurra ateratzen hasi ziren bai aparkalekuan eta baita ondoko belardian ere. Hala ere ez dira parke berria egiten hasi. Esiropiazio prozesua hasi da lurjabe batekin, baina hauek eta udalak lurra okupatzeko akordio batera iritsi ondoren azterketa geoteknikoa egiten ibili dira.

Pasa den urtarrilaren 25ean makina bat lurra ateratzen hasi zen Paris atzeko aparkale-



kuan eta ondoko zelaietan. Hurrengo egunean asteazkeneko azoka Eguzkitzaldean egin zen, eta aparkalekua itxita egon zen astebukaera arte. Paris etxe atzeko parkea egiten hasi zirelakoan geunden, baina azkenean ez da horrela izan.

Azken plenoan hiru lurjabeetako birekin lurra erosteko akordioa onartu zuten. Hirugarren lurjabearen lurra bereganatzeko espropiazio prozesua hasi zuten, baina honek luze jotzen duenez lurra okupatzeko akordio batetara iritsi dira. Honen ondorioz, proiektua adjudikatu aurretik egin beharreko azterketa geoteknikoa egiten aritu dira.

Proiektua egina badago ere, hau adjudikatzea izango da hurrengo pausoa. Apirilera arte prozesu guztia gauzatu eta obrak martxan jartzea da udalaren asmoa. 2.000ko aurrekontutan ez dute dirurik bideratu, baina kreditu aldaketa baten bidez aurrera eraman ahal izango da Paris etxe atzeko proiektua.

Apirila aldean lanak hasi bitartean aparkalekua kotxeentzat zabalik egongo da. Horrez gain, asteroko azoka ere betiko lekuan egingo da.

labur-labur

Atalluko espropiazioa

Pasa den alean aurreratu genuen bezala, Atalluko lurretan hartzeko zeuden lau partzelak hartzeko konprometua hartu dute lau enpresek. Udala hauekin akordio batera iritsi da, eta bide batez lur horien espropiazioa martxan jartzea erabaki zuten urtarileko udalbatzan..

Artzabalgo etxeak

Artzabal baserriaren lurretan etxeak egitekoak dira. Urtarrilaren 25eko plenoan bertan behera utzi zuten norma aldaketaren hasierako onepena. Arazo urbanistiko batzuk sortu dira promotorak aurkeztutako planteamenduan. Datorren plenoan onepena eman ahal izateko arazo horiek konpontzeko eskatu zaio promotorari.

Ikertalderen inkesta

Udalaren enkarguz Ikertaldeko etxebizitza arloan herrian dauden beharrei buruzko inkesta bat burutuko du laister batean. Udalak herritarrek inkesta horietan parte hartzea nahi du. Horregatik, inkesta horretan parte hartzeko zein pauso eman behar diren zehaztuz bando bat banatuko du etxe guztietara.

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**

IOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^o Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

**INDUSTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Ostape Aranguren

GASA
eta

BEROKUNTZA

Tel: 943 36 43 64 - 610015389

“Gaztelu bertsolaria” bekaren deialdia egin du udalak

Udalak “Gaztelu bertsolaria” beka antolatu du. Usurbilgo gai soziokulturalei buruzko ikerketak bultzatzea da deialdi honen helburua. Laguntza jasotzeko aukera izango dute 2.000. urtean egin eta Usurbilgo herria ezagutzeko ikerketa proiektu originalak eta argitaratu gabe guztiak. Dirulaguntza 800.000 pezetakoa izango da eta banaka edo taldeka egin ahal izango da.

Ikerketa ohitura eta herri eta auzoen ezagupena bultzatzeko egin du udalak “Gaztelu bertsolaria” beka deialdia. Izan ere, herriko gai soziokulturalei buruzko ikerketak bultzatu nahi ditu. Horretarako 800.000 pezetako dirulaguntza bideratuko du, aukeratua izango den ikerketa proiektuentzat noski.

Beka deialdi honetan parte hartzeko aukera izango dute 2.000. urtean egin eta herria ezagutzeko ikerketa proiektu originalak eta argitaratu gabeko guztiak. Nolanahi, egilearen esku egongo da bai gaia, bai ikerketagaiaren garaia ere.

Lau orriko memoria aurkeztu behar da

Lehiaketan banaka edo taldeka parte hartu daiteke. Hori bai, ikerketa proiektuaren memoria laburra (gehinez 4 orri) aurkeztu beharko da, eta bertan proiektuaren oinarriko jarraibideak, metodologia eta azterketa-unitateak azalduko dira. Memoria labur hori euskaraz aurkeztu beharko da. Honekin batera akademia titulua(k) eta gainerako ikerketa eta akademia inguruko merezimendu egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte eta eskatzaile-



aren lan-egoeraren egiaztagiria ere bai.

Udala eta gai hauetan aditua den elkarteak osatuko dute lehiaketa erabakiko duen Epaimahaia. Honek, aurkeztutako ikerketa proiektuak hobeto ulertzeko, beharko lukeen informazio osagarri guztia interesatuari eskatzeko eskubidea izango du, baita memoria laburra Epaimahaiaren aurrean aurkeztu eta azaltzekoa ere. Epaimahaia ekainean bilduko da, eta uztailaren 11n jakin ahal izango da beka jasoko duenaren izena. Hauatutako proiektua interesatuari jakinaraziko zaio eta honek, hamabost egunetako epean, laguntza onartzen duela idatziz jakinaraziko du eta baita lana noiz hasiko duen ere.

800.000 pezetako dirulaguntza izango da

Dirulaguntza 800.000 pezetakoa izango da eta honela banatuko da: %25 kontratua sinatzerakoan, %25a lanaren hasieratik sei hilabetera egin behar den txosten bat ematerakoan eta gelditzen den %50a lan bukatua entregatu eta Epaimahaikideek onartua

izan ondoren ordainduko da.

Euskaraz amaitutako lan idatziak- paperean edo euskarri informatikoan- Udaletxeko idazkaritzan aurkeztu beharko dira 2.000ko apirilaren 27a baino lehen. Goi-zientzi dibulgazio mailakoa izan behar duen obra hau DIN A4 orritan entregatu beharko da, bi tarte inprimatua eta bazterretan gehienez 2,5 zm. utzirik. Obraren hedadurak 300 eta 500 orri bitartekoa izan beharko du. Hiru alde bidali behar dira, baita PC (Word 2.0, Word 6.0, Word 97) edo APPLE (Word) formatoko diskete bat ere.

Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 27an

Lanaren edukia egoki adierazteko eta datu base dokumentaletan sartu ahal izateko, lanekin batera hiru hizkuntzetan- euskaraz, gaztelaniaz eta Europako Komunitate Elkarteke beste hizkuntz ofizial batean egindako laburpena- 15 lerrokoa, gehienez, eta beronen ezaugarrien zerrenda- 4 eta 8 bitartean- aurkeztu beharko dira.

Josu Aranberri



Patxi Seguroolari elkartasuna adierazteko hainbat mobilizazio izan dira

Patxi Seguroala usurbildar presoak 25 egun baino gehiago daramatza gose greban. Azken bi asteetan "Ximiori" elkartasuna adierazteko eta euskal preso politiko guztien Euskal Herriratzea eskatzeko hainbat ekintza burutu dira. Solidarioek bidea moztu zuten, Bordatxo aurreko errotondan ia egun osoz hainbat jende egon zen urtarrilaren 29an, eta tabernetan ura banatu zen 15 minutuz igande goizaldean.

Urtarrilaren 23an, aerolitoz jantzitako zortzi solidarioek N-634 errepidea moztu zuten. Errepide mozketan parte hartu zuten zortzi solidarioetatik lauk, izotz blokeetara lotu zituzten euren buruak, aerolitoak balira bezala. Beste bi solidarioek "Euskal Herriko aerolito solidarioak. 27an greba orokorarra" zioen pankarta eutsi zuten, eta beste biek presoaren inguruko informazioa banatu zieten bertaratuakoei ekintzak iraun zuen bitartean. Solidario talde honek gain, beste berrogei lagun errepide ertzean egon ziren presoaren argazkiak erakutsiz.

15 minutuz errepidea eten

Besoak izotz barruan sartu eta hala egon ziren solidarioek errepide erdian Ertzaintzako sei auto eta furboneta bat agertu eta airean hartu ondoren ertzainek lau lagunak errepidetik atera zituzten arte. Ertzaintza iritsi bitartean hamabost minutuz etenda egon zen errepidea, eta auto ilara luzeak sortu ziren alde bietara. Gero, errepide ertzean kareta zuriak kende eta identifikatu egin zituzten ekintzan parte hartu zuten zortzi solidarioak. Azkenean, solidarioek beraiek askatu zituzten euren besoak izotz pusketa handietatik.



Urtarrilaren 29an, larunbatean, egun osoz euskal presoaren Euskal Herriratzea eta Patxirekin elkartasuna adierazi zuten Bordatxo aurreko errotonda inguratuz egon ziren hainbat usurbildarrek. Bien bitartean, inguruko guztiei presoaren inguruko informazio banatzen zien pertsona batek.

Igande goizaldean berriz, 15 minutuz ura banatu zen Kaleberriko tabernetan. Goizeko 1.00ean Euskal Presoaren aldeko solidarioak sartu ziren tabernetan, eta Etzakit taldearen elkartasun kanta entzunaz ura izan zen tabernetan zerbitzatu zuten edari bakarra.

Ardi esnea kalean eta azoketan ezin salduan dabilta



Baserritarrak ardi esnea edo mamia kalean eta azokan saltzen ikusi izan ditugu urteetan zehar. Espainia Europear Batasunean sartu zenean osasun neurri zorrotzak jarri zituzten, baina lurralde autonomiko bakoitzak nahi zuen bezala interpretatu zitzaizkeen baldintza horiek. Azken urteetan inolako arazorik gabe saldu izan dute baserritarrak ardi esnea, baina orain, bapatean, baldintza horiek betetzen ez dituztenentzat 500.000tik 1.000.000 pezeta bitarteko isunak iragarri ditu Eusko Jaurlaritzak. Honen ondorioz, ardi esnea saltzen zuen lartzazabalgo Santos Jauregi geldirik dago.

lartzazabal baserrian 325 ardi inguru dituzte. Goizean goiz ardiei esnea bildu, plastikozko botelietan sartu eta esnea banatzera joaten zirena egunero. Astean 1.000 litro inguru banatzen zituzten. Donostiako San Martin plaza,

Antiguo, Gros, Herrera, Altza, Lasarte... bezero ugari zituzten, bai banakoak, bai harategiak eta baita taberna eta dendak ere. Herrian ere behin baino gehiagotan ikusi izan ditugu ardi esnea partitzen, larunbatetan Usurbilen eta igandetan Urdaiaga, Txoakolde eta Aginagan.

Eusko Jaurlaritzak neurri zorrotzak hartu ditu

20 urte zeramatzan Santos Jauregik esnea saltzen, baina orain, bapatean, isunaren mehatxuak etorri zaizkio leku guztietatik. "Ardiek azaroan

Donostian, Lasarten, Usurbilen... astean 1.000 litro esne banatzen zituzten. Orain geldirik daude eta ezer dute ezer egin

hasi eta maiatza bukaera bitartean ematen dute esnea, eta urtero bezala San Martin eta Grosera saltzera eramaten azaroan hasi ginen. Lau bat egunera, Tolosatik deitu ziguten esnea botelietan saltzen genuela eta hori galerazita zegoela esanaz. Ez ziguten eperik jarri, eta besteak ere saltzen ari zirenez jarraitu egin genuen". Antiguon harategi batean esne dexente uzten zuen, eta han isunaren mehatxua jaso zuten: 50.000 pezeta harategiari eta 500.000 pezeta beraiei. "Esnea partitzen uzteko astebeteko epea eman ziguten. Lasarten ere banatzen nuen esnea eta hemen ere salaketa jarri ziguten". Honenbestez abenduaren erdi aldera gelditu behar izan zuten.

Osakidetzak zenbait baldintza betetzea eskatzen die. Espainia Europear Batasunean sartu zenean lege batzuk jarri zituen esne banaketari lotuta,

baina lurralde autonomo bakoitzak lege hori nahi zuen bezala interpretatzeko ahalmena du. ENHetik esan digutenez, Eusko Jaurlaritzak ia muturreraino eraman ditu neurri hauek. "Oso zorrotzak izan dira. Esnea kalean saltzen duten baserritarrek inbertsio haundiak egin beharko lituzkete neurri hauek bete ahal izateko, eta ia ezinezkoa zaie. Esne produkzioan ari diren industriren parean jarri dituzte baserriak, eta haiei eskatzen dizkien baldintza berak eskatu. Nafarroan, adibidez, eskatzen dituzten baldintzak ez dira hain gogorrak".

Enpresa bat izango balira bezala

Ura kloratua izatea, esnea hozteko tankea gela batean egotea, enbasadora beste gela batean edukitzea, aldagelak jartzea... horiek dira besteak beste Osakidetzak eskatu dizkieten baldintzak. Santosen esanetan enpresa bat izango balitz bezala hartu dute bere baserria. "Gurea ez da enpresa bat. Ardiek esnea sei hilabetetan ematen dute, baina beste sei hilabetetan, udara, partean, honek ez du dirurik ematen, gastuak baizik. Ardiak mantendu egin behar dira, mendira eraman, gastua bes-

terik ez da sortzen garai honetan".

Osakidetzak eskatzen dizkien baldintzetara iristeko inbertsio haundiak egin beharko lituzkete, eta gero sei hilabetetan makina horiek geldirik edukitzeko inbertsio horietan ezin dutela sartu argi dauka Santosek. "Horrenbesteko inbertsioa egiteko ez daukagu bitartekorik. Zerbait egin daiteke, baina hortaraino ez. Datorren urterako baldintza hauek betetzeko moduan jarri eta ziur bihar beste zerbaitekin etortzen zaizkigula".

Baldintza hauek betetzea eskatzen bazaie ere, esnea plastikozko botelietan saltzeagatik etorri zaie lartzazabal baserrikoei debekua. 20 urte daramatzate honetan, eta urte horietan ez dute inolako arazorik izan. "Esnea plastikozko botelietan saltzen genuelako etorri da hau guztia, eta horrek ezin du horrela izan. Aitzakia bat besterik ez da izan. Esnea aztertu eta zerbait txarra bazuen, bale, baina beste aitzakia hori... Garai batean esnea zikinagoa ibiltzen genuen; eskuz librean biltzen genuen, hozterik ez zegoen... Gaur egun esnea txukun biltzen da, ondo hoztu, behar den tratamendua eman, botelietan sartu eta saldu egi-

ten dugu. Guk esnea oraingo baldintza berdinetan bildu, marmitetan sartu eta esnezaleari eman behar dizkiot. Hemendik Nafarroara joan behar du esnetegira. Hara joaten dena esne ona da beraiei esanetan, orduan zergatik egon behar du txarra guk zuzenean saltzen dugun esnea? Boteillak banan-banan garbitzen ditugu, esnea botelietan sartu eta gero saldu. Zer du honek txarra? Plastikozko poltsan sartzea libre da, eta hau hiru urtean egon daiteke ukitu gabe. Ondo egongo da, baina gainean jartzen zaion zenbakia bakarrik balio du".

Gaur egun esnea txukun biltzen da, ondo hoztu, behar den tratamendua eman, botelietan sartu eta saldu egiten dugu.

Hilabeteen bitan esnea aztertzeraz Lekunberrira eramaten dute. Esnea hartu eta beraiek joan behar izaten dute hara. Hala ere, esnea baserrian bertan aztertu behar dela uste du Santosek. "Esnea ona ala txarra dagoen orduan



“Niretzat esnetegiei esnea ematea errazagoa da, baina niri pena ematen dit 20 urtean gustora dagoen jende hori ezer gabe uztea. Poltsako esnerik ez dute nahi, garrantiarik ez du eta. Zenbat eta libreago dabilen, orduan eta hobea da ardi esnea. Esne bera poltsan eta botilan enbasatuta eta marmitan jarri eta azken honetan dagoena izango da onena, botilakoa hurrengoa eta boltsakoa kalitate txikiena duena. Hiru esneak desberdinak izango dira. Ba al dakizue zenbat makinetatik pasatzen den esnea enbasatzerakoan? Hau ez dut esaten gauden egoeran gaudelako, hori horrela da. Behi esnea eta ardi esnea oso desberdinak dira.”

esan behar dute. Nik Lekunberrira edozein esne eram dezaket, nirea ez dena ere bai, nahiz eta ez nukeen hori egingo. Hori ez da irtenbidea, esnea produzitzen den lekuan azertu behar da. Garai batean azterketak egiterakoan, saltzen ari ginen lekuan erosten ziguten esnea. Ez orduan eta ez orain, esnearen kalitatearekin ez dut inoiz arazorik izan. Behin edo behin galdu izan zaigula? Noski baietz, ardiaren esnea gordina eta galtzeko arriskua beti izango du”.

Erabaki hauen atzean interes batzuk daudela argi dauka Santosek. “Osakidetzak hau baino lehenagoko lanak badauzka ikusi nahi baditu, baina ez ditu ikusiko. Herritarrok egin gabe dauden lan konkretuak aurkituko dizkio, baina ez du egin nahi. Ez baitie kalitateak balio, etiketak baizik. Gure txarrean kalitate oneneko esnea guk daukagu, baina kalitatea eta kantitateak ezin dute bat egin, bat izatea badago baina biak ez”.

Osakidetzak ba omen daki nondik datozen interes horiek, baina beraiek ez. Bere ustez Osakidetzak baldintza batzuk eskatu behar ditu, baina base-riren egoera ere kontutan hartu behar dute. “Ardi gehiagoko jartzeagatik Europatik dirulaguntzak jasotzea alfer-alferrik da beste aldetik hondatu behar bagaituzte”. Ardiekin jai eta aste egin behar da lana, zenbat lan egin behar den balekitez ez zietela hori egingo dio Santosek.

Momentu honetan ez dute esnea saltzen, ezin dute esnerik saldu, geldirik daude beste modu batetara esanda. 325 ardi inguru dituztenez, hauek esnea ematen dute, eta esnezaleari saltzea beste aukerarik ez dute. Hori bai, etxera etorzen diren guztiei ematen die esnea. “Bila etortzen diren guztiei emango diet esnea,



gusto haundiz gainera. Kanean saltzea debekatua dut, baina etxean esnea bana dezaket. Bezeroak guztia merezi du. Hauek egitea kosta egiten da, mantentzea oraindik eta zaila da. Nik mantendu egin ditut, baina beraiek ere sostengatu egin naute”. Horrenbeste jende eduki eta orain honela utzi beharra da Santos Jauregik duen peneta-

Ardi esnea erosi nahi duena lartzazabal baserri- ra joan daiteke esne bila. Gustora emango diote

ko bat, hasi era gero gainera! “Duela 5 hilabete” aurten esnerik ez da salduko” esan balute... Aurretik zerbait esan baligute bezero hauek beste zerbait aurkitzeko aukera izan zezaket, baina hori ere ez. Bezeroa esku hutsik, eta gu zorrekin. Izan ere, aurten zor haundiak egingo ditugu”.

Esnetegietara esnea saltzea izan daiteke irtenbidea, baina oso diru gutxi ematen omen dute. “Beraiek nahi dutena egiten dute. Azken hilabeteko azterketen emaitzetan grasa

aldetik etab. arazorik ez dut izan, beherapenik ere ez didate egin, baina diru gutxi ematen dute: 117 pezeta litroko. Prezio horrekin ardiak jeisterik ez dago”. Bidean gastu haundiak daude, eta horiek mantentze nahi badira diru horrekin ezin dute ezer egin. “Bere itxuran ordainduko balute, 32 duron edo, bale, baina oraingoa burla bat da”.

Argi dagoena da bapatean lantegia itxita topatu dutela lartzazabal baserrikoek. Urte askotan beren ofizio izan dena egun batetik bestera kendu egin diete. Sei hilabetetan ateratzen dute urte osorako dirua, eta orain, Eusko Jaurlaritzatik etorri diren neurriei “esker” 54.000 duro inguru galtzen ari dira hilean. Galtzen ari diren diru horrek ematen die jaten udaran eta orain geldirik daudenez galerak besterik ez dituzte. Horrela jarraitzekotan ardiak saldu beharra ere aipatu zuen Santos Jauregik behin baino gehiagotan. Hala ere, oraindik zain daude. EHNE-k Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailarekin bilera bat egin zuten, eta Donostiako udalarekin salmentaren debekuaren inguruan hitz egin nahi dute orain.

Josu Aranberri

Erantzun desberdina izan zuen 27ko greba orokorrak Usurbilen

Urtarrilaren 27rako greba orokorrerako deialdia egin zuten Euskal Herritarrok, LAB, Jarrai, Amnistiaren Aldeko Batzordea eta Sneideak taldeek. Usurbilen erantzun desberdina izan zuen deialdi honek. Komertzioak itxita egon ziren egun guztian zehar, baina industria sektorean grebak ez zuten eragin haundiegirik izan.

Euskal Herritarrok taldeak deituriko greba egunak erantzun ezberdina izan zuen herrian. Ostalaritza eta merkataritza arloan arrakasta osoa izan zuen. Herriko komertzioak bat egin zuten greba deialdiarekin eta itxita egon ziren egun osoan zehar. Irakaskuntzari dagokionez, Udarregi ikastolan greba egin zuten, eta baita Zubietako Lanbide Eskolan eta Lasarteko Batxiler institutuan ere.



Industria sektorean erantzuna ahulagoa izan zen. Michelin, Luzuriaga, Ucin eta Ingemar bezalako lantegi haundietan lanari ekin zioten. Greba deialdiarekin bat egin zuten Cortes, Bruño, Plásticos Larrañaga eta Aizpurua autobusak enpresek. Azken honek zerbitzu minimoak eman zituen egun horretan. Savasan,

berriz, ordubeteko geldialdia egin zuten eta enpresa aurrean konzentratu ziren Euskal Presoak Euskal Herriratzeko eskatu eta Euskal Herriaren hitza errespetatu dadila eskatuz.

Pikete informatiboak eta manifestazioak

Egun guztian zehar mobilizazio ugari egin ziren herrian. Goizean goizetik pikete informatiboak ibili ziren enpresaz enpresa, beti ere Ertzaintza ondoan zutela. Eguerdiko 12.00etan manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar. N-634 errepidea moztan ere saiatu ziren Atxegalde parean, baina Ertzaintzak ez zien utzi. Arratsaldeko 19.00eta beste manifestazio bat izan zen Euskal Presoak Euskal Herriratzeko eta Euskal Herriak du hitza eta erabakia aldarrikatuz.



MAHUKA

BEHERAPENAK %30ean

Gizon eta emakumezkoen

modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- 1lf. 943 36 11 06



Igandetan ganba-ziri mundialak!

AEKren matrikulazio kanpaina


Oraingoan ere Etu-meta AEK euskaltegiak otsaileko matrikulazio kanpainari ekin dio. Klaseei dagokionez, oraingoz ordutegi guztiak zabalik daude, bai goizean, eguerdian eta arratsaldean, alegia. Euskalduntze, alfabetatze eta EGA mailak eskeintzen dira. Jakinarazi, bestalde, udalak diru laguntza ematen diela langabetu eta ikasleei. Matrikulazio epea zabalik dago eta otsailaren 11an amaituko da.




San Sebastian egunari aurrera hartu zioten Udarregi ikastolako haurrek. Bezperatik danbor soinua nagusitu zen Atxegalde aldean. Lehen hezkuntzako haurrak danborrak aurrean hartu eta plaza borobilean jardun zuten. Bat baino gehiago danborra hautsita ikusi genuen bukaeran egiten duten "paseiloan". Txikiak berriz, Agerialdeko frontoian bildu ziren. Bakoitzak bere erritmora bada ere, danborra jotzeko ohitura barneratzen hasiak direla nabaria zen.

Informazio gehiago nahi izanez gero, euskaltagira azaldu (Irazu kalea, 14) edo 943 37 20 01 telefonora deitu. Bulegoa goizez 10.00etatik 13.00a arte eta arratsaldez 17.00etatik 21.00ak arte egongo da zabalik. Hauxe da euskaraz hitz egiten ikasteko zuen aukera.


Bestalde, sagardotegi garaia hasi denez, AEKk "Sagardo txotx eguna" antolatu du datorren otsailaren 12rako Hernanin. Izena emateko euskaltegira dei dezakezue. Anina zaitzte!



Garai batean herriko untzioletan egiten ziren itsasuntzien maketak desberdinak eta itsas tresna zaharrak ikusgai egon dira Udarregi zaharreko erakusketa gelan urtarrilaren 30a bitartean. Hauekin batera, **Patxi Illarramendik** egindako alen maketak eta **Gregorio Arbeloa** euskal margolaria-
ren marinelei eta itsas munduari buruzko pintura lanak ikusteko aukera izan dute Eusko Kultur Taldeak (E.K. T) antolatutako erakusketara gerturatu duten guztiek.



Txiriboga tabernaren iragarkia Guardia Zibilaren "Mando" aldizkarian agertu da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako beste 85 enpresa pribaturekin batera. Askok kexua agertu dute haiekin kontsulatu gabe, eta bere baimenik gabe jarri dutelako publizitatea. **Oskar Uribe** Txiribogako jabea lur eta zur gelditu zen honen berri jaso zuenean. "Guardia Zibilaren aldizkarian gurea ikusi nuenean lur jota geratu nintzen. Haiei publizitatea jarzea ez zait okurritu ere egin"



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa


Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67



zerdi patsetan


Euskal Herriko sokatira txapelketa Usurbilen



Pasa den urtarrilaren 30ean Euskal Herriko goma gaine-ko sokatira txapelketaren ligaxkako azken jardunaldia jokatu zen Oiardo kiroldegian.

Emakumezkoetan, 520 kilotan Sakana taldea sailkatu zen lehen postuan. Beste bi taldeen egindako tiraldi guztiak irabazi zituzten, 6 puntu eskuratuaz. Bigarren Leioa izan zen 3 pubturekin eta hirugarren Goierri puntu bakar batekin, ez baitzuen tiraldirik irabazi.

Gizonezkoetan, 600 kilotan, Beti Gaztek nagusitasun osoz lehen postua eskuratu zuen. Bigarren postua Auzolan-Igeldorentzat izan zen, Leioia gelditu zen hirugarren, Barrundia laugarren eta Urrestila bosgarren. Finalerako Beti Gazte eta Auzolan-Igeldo sailkatu dira. Azken hauek Leioaren aurkako desenpatea jokatu behar izan zuen finalerdietan sartzeko. Izan ere, puntu berdinak zituzten azken jardunaldi hau amaitzean.



Emaitzak

Futbola

Urtarrilak 22-23

Usurbil F.T 2 Pedrusko 1 (1.R.)
Usurbil F.T 2 Ordizia 0 (n.)

Urtarrilak 29-30

Kilimon 2 Usurbil F.T 0 (1.R.)
Usurbil F.T 5 Billabona 5 (1.ju.)
Hernani 2 Usurbil F.T 1 (n.)

Eskubaloia

Urtarrilak 22-23

Usurbil K.E. 20 Escolapios 28 (2.N.)
Loiola Indautxu 14 Usurbil K.E. 15 (ju.m)

Urtarrilak 29-30

Arabakan 33 Usurbil K.E. 30 (2.N.)
Trapagaran 22 Usurbil K.E. 19 (ju.m)
Trapagaran 22 Usurbil K.E. 19 (k.m)

Hondartzako futbola

Aginaga Sagar. 3 Frudisk 2

Laburdurak

R.: errejionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskek
ju.: jubenila m.: mutilak

JUANTXO

Burdindegia



Kale nagusia, 10
Usurbil

37 00 08



Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES
SETABU, S.L.
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Telf.: 943 36 08 48

N • I

Ileapaindegia

MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Arizeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Milurteko azken jaiaren balantzea

Alferrik izango da Milurteko Azken Jaia zer izan zen esplikatzeko hastea, denok ere jakinaren gainean egongo baitzate honetzeko, baina antolatzailleok beste hainbat gauza esateko tartetxo bat eskatu diegu Noaualkoei.

Gustura gaude gehienok jaialdiaren emaitzarekin. Egingdako aurrikuspenen arabera, batzuen ustetan oso jende gutxi izan zen eta beste batzuen ustetan, berriz, uste baino askoz jende gehiago. Jendea bazen eta giroa ere bai, abendua izateko eguraldi polita izan genuen, azokako partaideak saldutakoarekin gustura ziren, herri kirolek ikusmin dexente sortu zuten eta arratsalde parteko Kiroldegiko ekitaldi nagusiak ere jende asko bildu zuen. Ez zen dena ondo atera, arratsaldeko ekitaldiak asko luzatu ziren esaterako, baina oro har nahiko gustura gaude antolatzailleok ere.

Ez da hasiera batean buruan geneukan jaiegun erraldoi hura, egun eta gauez egitekoa zena, baina garaiz jabetu ginen horretaz eta Usurbilen eta jendearen nahiaren neurriko jaialdia izan dela iruditu zaigu. Hasiera hartan buruan genekarrena izan ez bada ere, ordea, lan asko eman duen jaialdia izan da, bilera asko, berriketa asko eta jende askoren laguntza eskatu duena.



Horixe da oraingo honetan bereziki aipatu nahi dugun kontua eta berriro zuengana joarazi gaituena: jende askori eskerrak eman beharrean gaude, laguntza handia jaso baitugu hainbat Usurbildarren aldetik. Horrelakoetan esaten den bezala, ez gara izenak banan bana aipatzen hasiko, baina jakin ezazue ez zaituzte-gula puska batean ahaztuko: eskerrik asko denei.

Aipatu beharreko beste kontua aurrera begirako asmoe-na da, izan ere lastima izango litzateke jaiegun hau lehenengo aldi bakar batean galtzen uztea. Horrelakoek lehenengo aldi ematen dute lanik gehien eta lan asko egiten da alferrik gero aurrerako ez badi-ra. Lehenengo aldia izateko gainera nahiko erantzun ego-kia jaso duela ere esan liteke, "egun arrarod" (zenbat bider entzun ote dugu?) eta lan eguna izateko. Ba aurrera begira ez du halako arazorik izan beharrik: hurrengo urtean Urte Zahar eguna igandea da. Ikusi da zer den egin beharrekoa eta zer egin behar ez dena ere. Milurtea ez omen zen, gainera, lehenengo urtean amaitu, hurrengoan amaitu behar omen du... Zuen esku dago.

Inaxio Elizegi



XABIER EDARITEGIA

Etor zaitetz,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

X Idiazabal gazta
X Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Otindegia - Gozategia



Bestei bizitza emateko beldurra? Zuk ere eman ezazu odola!

Odola ematera noa! No-la? Entzun duzuna, odola ematera noa!". Gazteen artean ez da normala lehenengo esaldi hori entzutea. Odola eta beldurak bat egiten dute honelako kasuetan. "Zergatik ez duzu odola ematen? Odola ikusteak eta orratzek beldurra ematen didate". Hara, hau behin baino gehiagotan entzuna naiz! Horrela gabilza, gero eta odol emaile berri gutxiago daude Usurbilen.

Arratsaldeko 20.30ak dira. Lanak bukatu eta anbulatorio-ra noa odola ematera, 19.30etatik 21.30etara eman baitaiteke odola. Anbulatorioa sartu eta zenbait usurbildar daude odola eman zain, besteak eserita beren 0,4 litroak ematen ari dira. Batzuk etzanda, besteak eserita, besoan orratza eta ondoan odol poltsa dutela.

Erizaina nire zain dago. Tentsioa hartu, nire odol emaile txartelean zenbakiak jarri eta medikuarengana bidali nau. Behatz batean ziztatu, odol tanta bat likido urdin batera bota eta odola eman dezakedala esan dit. Aurrez, ordea, osasunari buruz galdera batzuk egin dizkit. Azken aldian botikarik hartu al dudan, duela gutxi atzerrian izan al naizen... Odola emateko prest nago!

Nire txanda da. Odola emateko eserlekuetako bat libratu da eta nire zain dut orratza. Zein besotatik eman nahi dudan odola galdetu dit erizainak, "eskubitik" erantzun diot nik. Beste aldera begiratu, ez baitzait orratza nola sartzen duten ikustea gustatzen, eta ia konturatu gabe zaina tolatu eta zazti! ia ohartu gabe odola ematen ari naiz. Eskua ireki, eskua itxi, eskua ireki, eskua itxi...

bor-bor nire zainetako odola, jende askoren bizi itxaropena poltsa batera doa bizi-bizi.

Odolak beldurra ematen diela esaten dute batzuk, orratza besoan sartuta edukitze hori ez dela atsegina besteek. Nik ere ez, baina tira, nahi izanez gero ez bat eta ez bestea ez ditut ikusten. Aldamenekoarekin hitz egiten ari naiz, lan kontuak hizketagai noski! Erizaina ere niregana dator, ea dena ondo doan galdezka. "No problem". Minutu batzuk besterik ez dira. Ia konturatu gabe nahikoa eman dudala esan didate. "Hori al zen dena?" Tirita bat jarri, piskat eserita itxaron, eta tortilla pin-txoa jatera. Ardoa edo ura laguntzeko? Gaztea naiz, eta badaezpada ere ura.

Horixe da dena, jende askori, eta inoiz zuri ere bai noski, bizitza luzatu diezaiokeen hamar minutuko kontua. Nire odola laborategian aztertuko dute, bere osagaiak banatu (plasma, plaketak, hematik...) eta era egokian kontserbatuko dute gero eritetxe-etara bidaltzeko. Zuk ere berdina egin dezakezu. Eman odola, kalterik ez dizu eta egingo. Ni behintzat, lehen-goia naiz, nahiz eta odol litro batzuk eman ditudan azken urte hauetan. Martxoaren 6an duzu aukera!

Josu Aranberri

Odola emateko gutxieneko baldintzak

- * Adina: 18 eta 65 urte artean eduki
- * Pisua: 50 kilotik gora
- * Tentsioa: baxua 5-10 Hg. artean eduki
altua 10-18 Hg. artean eduki
- * Pultsoa: 50-110 taupada artean
- * Hemoglobina: gizonezkoek 12,5 gr./litro
emakumezkoek 13,5 gr./litro
- * Maiztasuna: gizonezkoek gehienez urtean 4 aldiz
emakumezkoek gehinez 3 aldiz
- * Tarteak: gutxienez 2 hilabete azken emaitzatik
- * Baraurik ezin da odola eman
- * Hepatitis, sifilis edo SIDA transmisio arriskua duten ekintzarik ez

**TRUKE
R JANTZIAK
U Merkealdiak!
K
E**

Erdiko kalea, 2
Tel:94337 34 81

**JARRI HEMEN
ZURE
PLUBLIZITATEA**

Telf: 943 36 03 21


*Haur
jantziak*



**Pauma
Merkealdiak!**

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43


Usurbilek harmarri eta bandera berria izango ditu hemendik aurrera



USURBILGO UDALA



USURBILgo UDALA



USURBIL

Usurbilek, Gipuzkoako beste herriek bezala bere armarrria izan du mendeetan zehar. Atxega familiaren armarrria izan zitekeena hartu eta udaleko agiri eta idatzietan jarri izan da logotipo modura. Pasa den urtean armarrri hori eta era berean bandera ofiziala gaurkotzea erabaki zuen. Maiatzean aldaketa batzuk egitea erabaki zen. Eusko Ikaskuntzak, ordea, beste bi aldaketa egitea proposatu zuten. Orain proposamen hori kontutan hartuta, behin betirako harmarria eta bandera aldatzea onartu da.

Hauxek izango dira udalerriko armarrriaren ezaugarriak: kolore gorrizko hondoa, zuhaitza berezko kolorean, zuhaitzaren oinean eta ibilian basurdea berezko kolorean eta zuhaitzaren ezker eskuin urre koloreko bi panel. Bandera berriz lauki zuzena izango da, zilar kolorekoa eta erdi aldean udalerriko armarrria izango du. Behealdean Usurbilgo Udala testua eramango du.

Garai batean udalerrri bat sortzen zenean ezinbestekoa zuen logotipo antzeko bat izatea. Agiriak ateratzerakoan,

idatziak egiterakoan ikur bat erabiltzen zuten, armarrria alegia. **Borja Aginagalde** Eusko Ikaskuntzako teknikariaren esanetan inguruko animalia eta zuhaitzak erabiltzen zituzten horretarako. Usurbilek zuhaitz bat eta basurde bat hartu zituen armarrria egiteko. Hala ere, itxuraz Atxega familiaren armarrria zen hau. *"Denboran zehar aldaketa txiki batzuk izan ditu, osagai batzuk jarri, besteak kendu... baina argi dagoena da zuhaitza eta basurdea beti izan dituela. Arraroa da udal batek familia baten armarrria erabiltzea"*. Ez omen ditu honelako kasu asko topatu.

Tradizioa mantendu beharra

Udalak armarrria aldatu aurretik Borjari bere eritzia eskatu zion. Bere esanetan armarrria aldatzea ondo dago, gaurkotzea beti izaten omen da ona, baina beti tradizioa mantenduz. *"Armarrriek beren bizitza izaten dute, eta Usurbilgoak ere badu berea. Mendeak joan, mendeak etorri herriko armarrria beti antzekoa izan da eta tradizio hori mantendu beharra dago"*.

Armarrriak aldatzea ez da oraingo kontua, urteetan zehar herri guztietakoek izan baitute aldaketaren bat. XVII. mendean adibidez, armarrri konplexuak egiteko joera nabarmendu zen. Oraingo honetan udalak gaurkotzea erabaki du. Armarrri zaharrak atzean garai bateko zaldunek eramaten zuten burnizko jantzi haien antzeko bat zuen, orain hau kendu eta koloreak jartzea erabaki dute.

Azpian kolore gorria jartzeko gomendioa

Borjari bere eritzia eskatu ziotenean gaur egun dauden ballabideekin diseinu berri bat egitea zela onena esan zien. *"Dagoena hartu eta diseinu berria egitea proposatu nien. Zuhaitza bere koloreekin, basurdea ere bai eta azpian kolore bat jartzekotan gorria jartzeko"*. Eta halaxe izan da. Azpian kolore gorria izango du, eta hasiera batean armarrriaren gainean "Usurbil" hitza jartzeko asmoa bazuten ere teknikariak hori kentzeko gomendatu zion. *"Usurbilgo armarrria dela jakiteko ez du gainean izena eraman beharrik"*.

Josu Aranberri

Ibai-Ondo elkarteko bikotea txapelaldun elkarteen arteko II. mus txapelketan


Ibai-Ondo elkarteak ordezkatuz Ramon Solaberrieta eta Ilario Iradi bikoteak irabazi zuten pasa den urtarrilaren 27an Eguzki elkartearen jokatu zen elkartearen arteko II. mus txapelketa. Txapelketako azken jokoan Aitzaga elkarteko Markel Olaizola eta Joseba Arrizabalaga menderatu zituzten enbido eta ordago artean. Hirugarren postua Peña Pagolako Anjel Matxain eta Rufino Ibargoinek eskuratu zuten eta J. Luis Manzidor eta Pedro Juan Landak laugarrena.

Zortzi elkarte izan dira txapelketa honetan parte hartu duten elkarteak: Ibai-ondo, Aitzaga, Mahaspildegi, Andatzpe, Eguzki, Peña Pagola, Aginaga eta Yoko-Garbi. Elkarte bakoitzean kanporaketak jokatu ondoren, bakoitzak bi ordezkari izan zituen azkenean. Kanporaketak jokatu eta Peña Pagola, Ibai-Ondo, Aitzaga eta Andatzpeko ordezkariak iritsi ziren azken aurrekoetara. Kiñuak, larrialdiak, gezurrak... denetik izan zen Eguzki elkartearen, eta sariak ere bai noski.

1. postua



2. postua



3. postua



4. postua



Amaia Goiaran zinegotzi sozialistaren etxea koktelez erasotua

Pasa den urtarrilaren 29ko goizaldean lau koktel jaurti zituzten ezezagun batzuk Amaia Goiaran udaleko zinegotzi sozialistaren etxera. PSE-EEK herrian duen ordezkari bakarra Lasarten bizi da, eta etxean zegoen bere senideekin eraso gertatu zen unean. Hala ere, inork ez zuen kalterik jasan. Koktelek kalteak sortu zituzten balkoian eta komunean.

Erasoa larunbar goizaldean gertatu zen. 00.25 inguruan zenbait ezezagunek lau koktel molotov jaurti zituzten zinegotziak Lasarteko Buenos Aires kaleko 16. zenbakiko bigarren solairuaren kontra. **Amaia Goiaran** etxean zegoen une horretan, senarrarekin, bi seme-alabekin eta amaginarekin, baina osasun aldeetik ez zuten kalterik jasan.

Botatako lau kokteletatik hiruk eztanda egin zuten era-



soan. Balkoian sutea sortzeaz gain, koktel bat komunera sartu zen kristala puskatu ostean eta hemen ere sutea izan zen. Ertzaintzak eta bere senarrak itzali zuten sua. Honez gain, aldamenean zeuden bi kotxek ere kalteak jasan zituzten.

Komunetik zetorren soinu bat entzutean ohartu ziren zinegotzi sozialista eta haren senideak gertatutakoaz.

"Erasoa gertatu zenean esna geunden, baina etxearen beste aldean. Soinu bat entzun genuen, eta hasiera batean zirkuitulabur bat izan zela pentsatu genuen. Komunera joan ginenean sutan zegoela ikusi eta larrialdietara deitu genuen berehala".

Zinegotzi sozialistak ez beldurrik, ez bestelako ezer ez duela sentitzen adierazi zuen erasoren ondoren. *"Gauzak konpontzeko bide onena elkarrizketa dela uste dut, hitz egitea eta ondoren erabakiak hartzea".* Horregatik, sentitzen duen gauza bakarra *"pena" dela esan zuen, "horrelako gauzak egitea aukeratzen dutenegatik".*

Horrelako ekintzek bere kargutik ez dutela mugituko gaineratu zuen. *"Zalantzarik gabe Usurbilen lanean jarraituko dut, hori baita nik aukeratu dudana udala. Nire etxeari erasotzea erraza delako egin dute eraso nire kontra. Hala ez balitz, beste alderdikideren bati erasoko zioten. Izan ere, hautetsi sozialista guztiak dakigu eraso edozein unetan etor daitekeela",* gaineratu zuen **Amaia Goiaranek**.

Josu Aranberri



Amaia Goiaranek 42 urte ditu eta pasa den ekainaren 13ko udal hauteskundeetan PSE-EE alderdiko zerrendaburu aurkeztu zen Usurbilen. Hura zen udal baterako zerrendaburu aurkeztu zen lehen aldia, eta bere alderdiak zinegotzi bat lortu zuenez, orduz geroztik herriko zinegotzia da bera. Batzorde informatiboak eratu zirenetik Hazienda eta pertsonala eta Ongizatea batzordetan parte hartzen du. Lasartearra da jaiotzez eta bertan bizi da, aurrez esan dugun Buenos Aires kalean hain zuzen ere.



Xabier Orbegozo

 Nekazaritza zinegotzia

 Langilea

 23 urte

Nekazaritza eta baserria

Baserria izan da Euskal Herriaren biziraupenerako sektorerik nagusiena. Bera, batik bat, gure kultura, hizkuntza eta ohiturei eutsi diena. Bera ingurumena egokien zaindu eta gorde duena, eta aurrera ere, larri ibili! Guztioi gustatzen zaizkigu mendi-zelaiak, erreka-zokoak, bide- bazterrak txukun. Zenbatetan atera ez ote zaigu nekazaritza-gunetara joan garenan: "hauxe begien gozagarri eta polita", miresgarritasunak harrapatu. Askok eta askok, momentu horretantxe ezagutu izan dugu baserriarren lana. Hala eta guztiz ere, tamalez esan beharra dago eta aitortu, nekazaritza izan dela, egun ere bai, jakina, sektoreetatik baztertua. Aisa gainera!, eta hau guztiok ondotxo dakigun aspal-diko kanpai-hotsa da.

Baserria edo nekazaritza egoera ezin larriagoan aurkitzen da. Krisia da berarenean erabiltzen dugun hitzik arruntena. Baserria eta krisia ia-ia sinonimotzat jo ditzakegu. Amilkan gainbera datoz egunetik egunera iraun ezinik. Indarrrik gabe geratzen ari, inork bertara joan nahi ez duelako: baserria lantzerantz joan nahi ez duelako. Eta honek guztiak badi-tu arrazoiak. Arrazoi galantzak eta latzak gainera, eta neuk bat esatekotan hauxe nioke: lantzen dituzten produktoak behar hainbeste ez baloratzea.

Gaur-gaur, ez dakigu zer jaten ari garenik ere. Ero-gaitzak ditugu han-hemenka oihartzun: behi eroak, oilo eroak, untxi eroak, aza eroak, tomate eroak, eta nik ba al dakit, ba, zenbat ero!?

Badirudi, martxa honetan, guztiok ero-gaitzak harrapatuko gai-

tuela. Horratx! Baina ez behi, ez oilo, ez untxi eta ez ezer, ez dira erotzen berenez; hor bada arrazoirik: ematen dioten jaten edo alimantu hori, alegia.

Behia behi izateko galeratzen dioten alimantu-drogak. Oiloari oilo izateko eragozten dioten elikadura zikinak. Untxiari untxi ez izateko ematen dizkioten jukutriazko bazkak. Eta hau guztia, diruaren truk. Gizakia bera ere ero-gaitzak jota dago, lotsarik gabe eta ausardiaz honetara jokutzen ari delako: ez baitaio axolarik guztiok eromenera eramatea, bere patrikak txanpenez betetzearen truk.

Aipatzen ari naizen hau, benetan onartezina da. Guk, gizakiok, kalitatezko produktoak behar ditugu; ez manipulatuak. Bai esne, bai okela, bai barazki, bai gainera-gainerakoak, naturalak behar ditugu: bertako baserriarrek ematen eta eskeintzen dizkiguten kalitate horretakoak; ez kanpotik datozkigun kutsaduraz betetako merkezurekoak. Garestiagoak bai, jakina, baina kalitate-garantia ziurtatzen ditugutenak.

Noaua!-ko irakurlegoari zera hauxe adierazi nahi diot: merke-usainak alde batera utzita, hemen bertako baserriko produktoak kontsumitzeko; zer jan eta edaten dugun horretan baitago gure osasunaren giltza.

Bizi zaitez baserriarekin edota nekazaritzarekin. Bizi mendi-baso eta zelaiekin. Goza baserrietako ingurumen zoragarriekin, baserri-tarrek inoiz ez bezala, geure-geureak ditugun, inoiz ez bezala, baserriko produktoei eta hainbat aberastasuni zintzoki lagunduz.

Lehiaketa



Nola izena du baserri honek?

Asmatzaileen artean Bordatxo tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu

Bai erraza! Oraingoan ere eskura jarri dizuegu Antxetan afaltzeko aukera. Baserriak eza-gutzen dituztenek behintzat ez dute arazorik izan. **Zelai-Haundi** zen guk eskatzen genuen baserriaren izena. Erantzuna asmatu duzuenon artean zoketa egin dugu beti bezala eta **Eñaut Lasarte Agirre** izan da Antxeta tabernan bi pertsonentzat afaria irabazi duena. Zorionak Eñaut!



urtarrilaren 12tik
gose greban

Euskal Presoak Euskal Herrira!

otsailaren 12an, larunbata,

Paris-era goaz

Patxi Seguro **Maioz**

herritarrari gure elkartasuna adieraztera

zatoz gurekin!



**Autobusa
antolatu dugu**

Gure artera bilgunea

Irteera ostiralean, arratsaldeko 20.00retan frontoi atzetik; itzulera igande goizaldera. Autobusa literaduna izango da. Izena emateko tokiak: Zendoia-enea, Patri, Txirigoba, Aitzaga, Benta eta Arrate Egoitza. Izena emateko azken eguna: otsailaren 9a, asteazkena. Prezioa: 7.000 pta. - ikasle eta langabetuak dohain.

A genda

OTSAILAK 3 osteguna

- Bota Punttuba bertso eskolak antolatuta "Santa Ageda besperaren jatorria" gaia hartuta hitzaldia emango du **Joxe Mari Satrustegi euskaltzainak**. Bertso eskolako aretoan (Udarregi zaharra) arratsaldeko 17.00etan.

OTSAILAK 4 ostirala

- Santa Ageda bezpera izanda, ohitura zaharrari jarraituz kopla kantari **Santa Ageda bezperako eskea** irtengo da frontoi atzetik. Parte hartu nahi duenak **baserri-tarrez jantzita eta makil batekin** etorri beharko du.

OTSAILAK 7 astelehena

- **Euskal Herria Askatu konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.

OTSAILAK 9 asteazkena

- **Gurasoentzako mantentzen diren gimnasia ikastaroan** parte hartzeko izen ematea egin ahal izango da egun honetan arratsaldeko 18.00etatik 19.30etara Udarregi zaharrean.

OTSAILAK 14 astelehena

- **Euskal Herria Askatu konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan.

OHARRAK

- ✓ Otsailaren 26an eta 27rako **Formigalera eski irteera** antolatu du Andatza Kirol Elkarteak. Izena eman nahi duten guztiek Txiriboga tabernan eman ahal izango dute izena. Prezioa: 11.500 pezeta.
- ✓ **Ford Escort Turbo Diesel kotxea** daukat **salgai**. SS-4609 AS. Deitu 943 36 33 90 / 943 43 54 76 telefonotara.
- ✓ **Neska euskaldun bat** eskaintzen da **haurrak gauetan zaintzeko**. Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (Belen).
- ✓ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke**. Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).
- ✓ **Rossignol markako snowboard tabla** daukat **salgai** fijasio eta guzti. Tel.: 943 36 51 80 Kami (gauean deitu).
- ✓ Atxegalden **Xabi janari denda alokatzen da**. Deitu 943 37 08 5 telefonora.
- ✓ Eliza eta Patri tabernako izkinan **tolestatzen den haur aulkia galdu** zitzaigun. Jaso zuenak deitu: 943 36 12 35/ 943 36 60 14
- ✓ **Peugeot 205 kotxea** daukagu **salgai**. SS-Z matrikula. Interesatuok deitu 943 36 54 66 telefonora.

KOPLA KANTARI SANTA AGEDA BEZPERAN

Otsailaren 4an, ohiturari jarraituz Santa Ageda bezperako eskea irtengo da frontoi atzetik arratsaldeko 19.00etan. **Baserritarrez jantzita eta makil batekin azaldu**

MATRIKULATU ETUMETA EUSKALTEGIAN

- Euskalduntze, alfabetatze eta EGA mailak.
- Matrikulazio epea otsailaren 11an amaituko da.
- Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 943 37 20 01 telefonora

GURASOENTZAKO MANTENIMENDU GIMNASIA IKASTAROA

- X Otsailean hasi eta ekaina bitartean
- X Gimnasia ikastaroa, egokitua eta atsegina
- X Goizetan izango da Agerialdeko gimnasioan
- X Matrikula 4.000 pezeta, 1.000 pezeta hilerio
- X Izen-ematea: otsailaren 9an 18.00etatik 19.30etara Udarregi zaharrean
- Harremanetarako: Haritz 943 37 06 45
- Antolatzailea: GURASO ESKOLA

GALARRAGA GARRAIOAK

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



Kima

MASAJE LEKUA




Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97


Oraindik garaiz zabiltza!!



- Hartu 1999 urteko Noaua! hamabostekariaren ale guztiak (58-80) eta ale honekin batera banatu dugun aurkibidea eta joan zaitez Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara, edo Laurok, edota Lizardi liburutondara. Hor izango duzu 1999ko liburukiari dagokion azala. Ondoren bi liburudenda horietako batean koadernatzeko agindu.
- Noaua! Kultur Elkarteko bazkide zaretenok azala doan izango duzue eta koadernatzea 1.500 pezeta ordaindu beharko duzue. Bazkide ez zaretenok, azalarengandik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea berdin, besteok bezala.
- Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta. Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.




BAZKIDIE TXARTEA
5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

469
 bazkide ditu Noauak.
 Zu ere egin zaitez
 bazkide. Zergatik ez?
 Eman ezazu zure
 laguntza



Udarregi Ikastola



PARTAIDE
Ikastolak



**2tik 16
urtetara**

**Haur Hezkuntza
(2-6 urte)**

**Lehen Hezkuntza
(6-12 urte)**

Derrigorrezko

**Bigarren Hezkuntza
(12-16 urte)**



Matrikulazio epea:

otsailaren 7tik
otsailaren 14ra

Ordutegia:

Goizez, 10etatik 11etara
Arratsaldez, 15.30etatik
16.30etara

☎ 943 36 12 16